

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Montzoiak Indiaren biraketaren arduradun

EARTH AND PLANETARY SCIENCE LETTERS aldizkarian argitaratu emandako artikuluan, Giampiero Iaffaldano australiar zientzialariak zuzendutako taldeak frogatu du montzoien indarraren eraginez Indiako ekialdeko kostaldea mendebaldekoa baino azelerazio handiagoarekin higitzen ari dela, eta horren




WWW.STEVENMCCURRY.COM

ondorioz azpi-kontinente osoa azken hamar milioi urteotan ordularien aurkako noranzkoan gradu bat biratu duela. Montzoiek askatzen duten uraren pisua da neurri batean Indiaren errotazioa eragiten duena.

Ikerlariak suposatzen dute azpi-kontinentearen mugimenduak eragina izango duela inguruan dauden plaka tektonikoetan, baina ezin dute ezer ere ziurtatu etorkizun hurbilean gerta daitezkeen lurrikarez.

Saturno eta Entzelado, hari elektriko lotuta

GURE PLANETAN, poloetatik gertuko eskualdeetan gertatzen dira aurorak. Horiek sortzeko, ioiek edo elektroiek eremu magnetiko bat zeharkatu behar dute, eta ondorioz oso izpi ikusgarriak emititzen dituzte. Eguzkiak emititzen ditu ioi eta elektro horiek.



NASA

Saturnon, berriz, aurora iraunkor eta ikusgarria dago, baina kasu honetan zirkunferentzia itxura du eta Entzelado satelitearekin lotzen du planeta. Entzelado Saturnotik 240.000 kilometrora dago, eta berak igortzen ditu Saturnoko eremu magnetikoa zeharkatzen dituzten ioiak; horrelaxe lortzen den aurorak zirkunferentzia itxura eta milioi bat kilometroko luzera du. Beraz, ezagutzen den kable elektrikorik luzeena da.

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

Lausotzearen aurkako estaldura

Asmakuntza honen bidez betaurrekoetan, autoetako parabrisetan eta beirazko edo plastikozko edozein gainazaletan lurruna sortzea eragotziko da. Gainera, estaldura iraunkorra da.

<http://ttiki.com/26673> (Gaztelaniaz)

Makako espezie batek GIBaren aurkako immunitatea du

TRIM5 izeneko proteinaren bidez oztopatu egiten da HIESaren birusa biderkatzea, eta ondorioz infekzioa. Proteina horri esker makako espezie batek ez du HIESik garatzen, ikerlari talde batek *Nature* aldizkarian argitaratu eman berri duenez.

<http://ttiki.com/26674> (Frantsesez)

Australiako umeak, zapoaren zentzumena galtzen

Australian 8 eta 12 urte bitarteko 432 haur aztertu ondoren, 27k ez dutela azukrearen zaporea bereizten konturatu dira ikerlariak. Zaporearekin zerikusia duten beste zenbait datu ere eman dira aipatutako ikerketan. Horien arabera Australiako umeengan arazo larria sortzen ari dela ebatzi dute ikerlariak.

<http://ttiki.com/26675> (Frantsesez)

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16